



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, XEDE DUENA IRUÑEKO UDALAREN HAURREN MAHAIA ALDATZEAK UKITZEN AHAL DITUEN HERRITARREN ETA ORDEZKARITZA-ERAKUNDEEN IRITZIA JASOTZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.l. artikulua xedatzen duenez, Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Administrazio eskudunaren webgunearen bidez, zeinean jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauak ukitzen ahal dituen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Aldaketa hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Dokumentu honen xedea da galdera horiei erantzutea eta Iruñeko Udalaren Haurren Mahaia aldatu aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izaten ahal direnek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.

Haurren Mahaia 2010ean sortu zen, eta Iruñeko Udalaren partaidetza-organoa da, haurren babesaren, parte-hartzearen, sustapenaren eta arretaren arloan beharrezkotzat jotzen diren gai guztietarako.

Helburu nagusien artean ditu "Iruñeko haurren eta haien elkarteen informazioa, balorazioa eta proposamenak sustatzea, udal-politikak abiatutako jarduketari buruz" eta "sustatzea Nazio Batuen Batzar Orokorrek 1989ko azaroaren 20an Haurren Eskubideei buruz hartu zuen Hitzarmenean jasota dauden haurren eskubideen erabilera".

Azken urteotan, nabarmen garatu dira haurren eta parte hartzearen arloko arauak.



2022. urtean, 12/2022 Foru Legea onetsi zen, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa. Lege horren 17. artikuluan, eskubide hauek aitortu zaizkie haurrei: gizartean parte hartzeko eta elkartegintzarako eskubidea, entzunak eta adituak izateko eskubidea, eta adierazpen askatasunerako eskubidea. Horrez gain, aipatzen du ezen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zabaldu eta kontuan hartuko duela partaidetzarako tokiko kontseiluak edo egitura egonkorrek, haurrek eta nerabeek osatutakoek, adierazitako irizpidea, udal esparruan kontsulta eta partaidetzarako eginkizunak badituzte.

Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legeak haurrek eta nerabeek parte-hartzerako duten eskubideari heltzen dio 55. artikuluan, eta 56.4 artikuluan, berriz, adierazten da ezen "toki-administrazioek jarduketak garatuko dituztela haurren eta nerabeen parte-hartzea beren lurralde- eta eskumen-esparruan sartzeko; horretarako, toki-kontseiluak edo parte-hartze egitura egonkorak sortu eta abian jarriko dituzte, haurrek eta nerabeek osatuak, haiengan zuzenean edo zeharka eragina duten toki-mailako gai guztietan kontsulta- eta partaidetza-eginkizunak izanen dituztenak, eta haien funtzionamendua aldeztuko dute".

Gainera, Haur eta Nerabeen I. eta II. udal planetan (2018-2022 eta 2023-2027, hurrenez hurren) ezarri zen haurrek eta gazteek parte hartzeko erakunde egonkor bat sortzea eta sustatzea.

Azkenik, Iruñeko Udalaren Partaidetzarako Erregelamenduak, 2019ko azaroaren 14an onetsiak, Iruñeko herritarrek udal-bizitzan eta -kudeaketan parte hartzeko dituzten organoak arautzen ditu.

Nabarmena da, beraz, Haurren Mahaiaren Erregelamendua aldatu beharra dagoela, indarreko arau berrietara egokitzeko eta ezartzeko zein diren haur eta nerabeek zuzenean parte hartzeko esparru horren funtzionamendu-arauak.

b) Erregelamendua aldatzeko beharra eta aukera.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onetsi zuen 1989ko azaroaren 20an, eta hitzarmen horren printzipio gidarietako bat haurren parte-hartzea da.



Badira zenbait elementu gakoak direnak haurren eta nerabeen iritziak errespetatzen direla ziurtatzeko; horietako bat haurren parte-hartzea da (12. artikuluan ezarria). Horrek esan nahi du ezen parte hartzeko eskubidea harago doala haurrek eta nerabeek aske adierazteko eta iritzia emateko mekanismoak sustatze hutsetik: berarekin baitakar haur eta nerabeei entzutea, eta haur eta nerabeak funtsezko eragile bihurtzea, gaitasuna dutela politika publikoetan eragiteko edo zuzenean eragiten dieten gaietan eragina izateko.

Alde horretatik, Iruñeko Udalak Haurren eta Nerabeen II. Plana (2023-2027) egin zuen. Plan horretan ezarri zen zein den udalaren jardun-esparrua haurren eta nerabeen arloan; adierazi zen parte-hartzea ildo estrategikoa dela, babesarekin eta prebentzioarekin batera, eta, zehazki, helburuetako bat dela "haurren parte-hartze esanguratsua sustatzea Iruñeko Haurren eta Nerabeen Mahaiaren bidez", Iruñeko bizitza publikoan haurren eta nerabeen iritziak, beharrak eta lehentasunak kontuan izateko asmoz.

Gainera, 2018. urtean, Haurren eta Nerabeen I. Plana onetsi ondoren, Unicefek Haurtzaroaren Hiri Adiskide izendatu zuen Iruña lehen aldiz. Izendapen hori 2024ko martxoaren 12an berritu zen, eta indarrean izanen da 2027ko abenduaren 31 arte.

Izendapen horrek nabarmentzen du tokiko gobernuek beste eragile batzuekin eta, bereziki, hartzailleekin (haurrekin eta nerabeekin) elkarlanean egin duen lanaren balioa, haien eskubideak babesteko eta eskubideok betetzen direla bermatzeko. Horrela neurri estrategikoak inplementatzeko prozesu etengabea aitazindari dira, zernahi inguruabarretan izan ere, eta neurriok eragin nabarmena dute haien ongizatean.

Haurtzaroaren Hiri Adiskideen sarearen barruan izateak (301 hiri dira haren barruan egun) ikuspegi hau izatea dakar berekin: haur eta nerabe orok aukera izan behar du bere herrian eta komunitatean osotara garatzeko. Haurtzaroan egiten den inbertsio bat da, eragin positiboa duena orainaldian, baita etorkizunean ere, haurtzaroaren eta gizarte osoaren errealitatea eralda baitezake.

c) Arauaren helburuak.

- Haurren egungo udal-mahaia aldatzea.
- Helburua eta izaera ezartzea
- Haurren eta nerabeen eskubideak defendatzearen alde lan egiten duten herritarrek eta erakunderik adierazgarrienek parte hartzeko mekanismoak artikulatzea.
- Haurren Mahaiaren eginkizunak definitzea
- Haurren Mahaiaren osaera ezartzea



- Antolamendu- eta funtzionamendu-araubidea ezartzea.
- Mahaikideak hautatzeko, zein epetarako hautatzen diren, horiek kargugabetzeko eta kideek uko egiteko prozedura ezartzea.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik. Ez da aurreikusten ordezkari konponbide erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

PARTE HARTZEKO EPEA

2024ko irailaren 24tik urriaren 7ra., barne.

EKARPENAK BIDALTZEKO:

infanto_juvenil@pamplona.es